


Plazida Otaño (1867 – 1954 Zizurkil, Gipuzkoa)

Joxe Bernardo Otaño *Baria* (1842 – 1912 Zizurkil, Gipuzkoa)

EZKONTZEKO ASMOTAN

Doinua: Ezagutu zuenak
Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)
Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1993.
Pedro M. Otaño eta bere ingurua I. Auspoa. 91 or.

Plazidak 18 urte zituela, jai bazkalondo batez, etxeko sukaldean bertsotan ari ziren aita-alabak. Plazidak aitari bertso batean esan zion, adinez aurrera zihoala eta, ezkontzeko asmoa zuenez, dotea prestatzen hasteko. Dotea zen ezkonberriari gurasoek ematen zioten ondasuna. Eta hauxe aitaren erantzuna eta alabaren errespuesta.

Joxe Bernardo

Ezkondu behar denala
hoi den **baloria**!
Hemezortzi urte den
hire **edadia**.
Pikara*, gaizki hazi
lotsarik **gabia**
hik aberastuko naun
lehen banaiz **pobria**.

Plazida

Aita, zahartu ta gero
garai hobia **ez da**
neska gaztiak ere
badu bere **kezka**.
Ilea zuriturik
nobiorik* **ez-ta**
orduan alperrik da
soinua ta **festa**.

* **Pikara** = *Kokina* **nobiorik** = *senargairik*